

DENTSITATE-ESPERIMENTUA

Gaur, kolore eta dentsitatearekin esperimentatzeko ekintza proposatzen dizuegu.

Horretarako, beharko dugu:

- 3 pote garden eta hermetiko, ez oso handiak, haurrek zailtasunik gabe hartu ahal izateko.
- Ura.
- Gorputzeko olio.
- Koloratzaile elikagarriak.
- Zotzak.

Prestaketa:

- 1) Poteak urez bete erdiraino.
- 2) Zotz baten bidez, koloratzaile elikagarri pixka bat hartu eta nahastu pote batean. Gauza bera egingo dugu beste poteetan.
- 3) Poteak olioaz bete goraino eta zotz baten bidez koloratzaile elikagarri pixka bat hartu olioaren tindatzeko, uretan jarri dugun beste kolore batekin.
- 4) Poteak itxi eta jolasteko prest!

Dentsitate desberdineko bi likido erabiltzean (ura eta olio), poteak astintzen baditugu une batez nahastuko dira, baina berehala bueltatuko dira bakoitza bere tokira. Oinarrizko koloreak (urdina, gorria eta horia) erabiltzen baditugu, koloreak nahastu eta kolore berriak sortu ahalko ditugu une batez:

URDINA + GORRIA = MOREA

URDINA + HORIA = VERDEA

GORRIA + HORIA = LARANJA

Proposamena nola egiten den hobeto ikusteko, hemen duzue esteka:

<https://www.youtube.com/watch?v=-BF4JYWfCGo&feature=youtu.be>